# BANDOA

MUNGIA
UDALA

**EMAKUMEEK JASATEN DABEN INDARKERIAREN KONTRAKO NAZINOARTEKO EGUNA**

**ZEMENDIAK 25 de noviembre**

**Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres**

Mungiako Alkate-udalburuak, udal ordezkari politiko guztien adostasunagaz, honakoa adierazoten dau:

1. Gure udalak bat egiten dau **Berdinsareak egindako Adierazpen Instituzionalagaz.** Aurten **Indarkeria bikarioa** azpimarratu gura da; hau da, **emakumeari, hirugarren pertsonak tartean jarrita, kalte psikologikorik handiena** eragiteko, egiten jakon biolentzia. Indarkeria mota horrek krudeltasunaren mailarik muturrekoena lortzen dau hirugarren pertsona horreen erailketaren bidez (bere seme-alabak, ama, aita, une horretan daukan bikotekidea, etab). Indarkeria hau erabilten danean, hirugarren kaltetu horreek, **seme-alabak tresna eta katebegi bihurtzen dira erasotzaileek emakumeei tratu txarra emoteko bidean**. Beharrezkoa da konturatzea jarrera eta diskurtso arriskutsuak dagozala, horreek identifikatzea eta euron kontrako jarrera hartzea, hau da, adingabeen eta emakumeen birbiktimizazinoan eragiten daben diskurtsoak, euren salaketak susmopean jartzen dabezanak, amak zigortzen dabezanak, euren testigantzak gitxiesten dabezanak eta, emakumeen eta adingabeen segurtasunaren eta indarbarritzearen aurretik, guraso-ahalaren eskubidea babesten dabenak.
2. Euskal erakundeok indarkeria horri aurre egiteko erantzukizuna dogu eta ikuspegi feministatik heldu behar deutsagu**.** Horregaitik, helburu honeetarako konpromisoak hartu gura doguz:
   a. **Indarkeria bikarioaren errealidade hori agerian jartzeko**, adi egon eta behar dan moduan ardurea hartzeko, koordinazino protokoloetan eta biktimei kargu egiteko protokoloetan txertatuta.
   b. Indarkeria matxistaren biktima **adingabeak detektatzeko eta kasu horreetan arin esku-hartzen** laguntzeko, udal-zerbitzuen bidez, beste eragile batzukaz alkarlanean (hezkuntza-, osasun- eta polizia-agenteak, etab.).
   c. Indarkeria matxistaren biktima adingabeak **babesteko eta horretan esku hartzeko prozesuak hobetzeko**, ikuspegi feminista daukan sektore arteko lan integral eta holistikotik bideratuta.
   d. Neurri guztien erdigunean jartzeko **biktimen eskubideak eta ahalduntzea.**
   e. Toki-administrazinoko **langileak bardintasunaren eremuko prestakuntza jaso** daien bultzatzeko, genero-ikuspegia eta giza eskubideen ikuspegia aintzat hartuta.
   f. Lanean jarraitzeko **itun bat lortzeko: bardintasunaren aldeko eta emakumeek eta euren seme-alabek jasaten daben indarkeriaren aurkako herri-ituna**. Izan bere, herritar guzti eta bakotxaren jarrera aktiboa behar dogu indarkeria matxistarik ez daukan gizartea lortzeko.
   g. Gogoratu laguntza-telefonoak indarrean dagozala: batetik, **SATEVI (900 840 111)** indarkeriaren biktima diran emakumeentzat; eta, bestetik, **ZEUK ESAN (116 111)** ume eta nerabeentzat.
3. Honegaz batera, Udalak dei egiten deutsue herritar guztioi, zemendiaren 25ean (eguena), 19:00etan, udaletxe ondoan egingo dan **konkentrazino isilean parte hartu daizuen.**

El Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Mungia, de conformidad con la totalidad de la representación política municipal, declara:

1. La adhesión a la **Declaración Institucional de Berdinsarea**, que es esta ocasión pone el acento en la **violencia vicaria**, aquella que se ejerce sobre las mujer con el fin de causarle el **mayor daño psicológico a través de terceras personas** y que consigue su grado más elevado de crueldad con el homicidio o asesinato de hijas e hijos, madre, padre, pareja actual, etc. Cuando se infringe este tipo de violencia, las **niñas y niños, se convierten en instrumento y correa de transmisión del maltrato** de los agresores hacia las mujeres. Por ello, resulta necesario alertarnos contra los discursos que inciden en la revictimización de menores y mujeres, que ponen bajo sospecha sus denuncias, que penalizan a las madres, que desacreditan su testimonio y que preservan el derecho de la patria potestad por encima de la seguridad y recuperación de las mujeres y menores.
2. Las instituciones vascas tenemos la responsabilidad de combatir también este tipo de violencia desde una perspectiva feminista. Por ello, nuestro compromiso a:
   a. Contribuir a la **visibilización de esta violencia vicaria** y atenderla debidamente, actualizando e incorporándola en los protocolos de coordinación y atención.
   b. Contribuir a la **detección e intervención temprana de menores** víctimas, a través de los servicios municipales en colaboración con otros agentes (educativos, sanitarios, policiales, etc.).
   c. **Mejorar los procesos de intervención y protección** de menores víctimas de violencia machista desde un marco de abordaje interseccional, integral y holístico con perspectiva feminista.
   d. Situar en el centro de todas las medidas los **derechos de las víctimas y su empoderamiento**
   e. Impulsar la **formación en igualdad del personal** de la administración local, con enfoque de género y de derechos humanos.
   f. Seguir trabajando por lograr un **pacto de país por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres e hijas e hijos**. Necesitamos actitud activa de toda la ciudadanía para conseguir una sociedad libre de violencia machista.
   g. Recordamos los teléfonos de atención telefónica a mujeres víctimas de violencia **SATEVI (900.840.111)** y de atención a infancia y adolescencia **ZEUK ESAN (116.11)**
3. Asimismo, hacemos un llamamiento a nuestros vecinos y vecinas para acudir a la **concentración silenciosa** convocada para el jueves 25 de noviembre, a las 19:00 horas en las inmediaciones del ayuntamiento.

MUNGIA
UDALA

Mungian, 2021eko zemendiaren 24an

ALKATEA

Ager Izagirre Loroño